## txokotik



Iñaki Lekuona

# Colonias

El eco de los rotores de los dos Pumas del Ejército francés reverberó en el valle anunciando su llegada. A los pocos segundos, entre las brumas del amanecer, desde lo alto de la colina, se pudo divisar el perfil de los helicópteros de combate, como una versión sin walkirias Wagnerianas del terrible film de *Oliver Stone. Cuando los motores* dejaron de bramar, un emisario de París descendió de uno de los aparatos. Los notables acudieron a rendir pleitesía a Dominique De Villepin, ministro francés de Interior.

Un año se ha consumido desde que su predecesor anunciara con sones de trompeta el bálsamo de fierabrás con el que sanar las cicatrices de este pueblo que, en lugar de bailar al son del pífano y del tamboril como es su deber, se dedica a quejarse por esto, por aquello y por lo de más allá. ¡Como si la República francesa no tuviera otras preocupaciones!

Empezando por Africa, donde la descolonización se llevó a cabo por el simpático procedimiento de «os damos la independencia pero mantenemos la tutela militar y evidentemente el control empresarial o sea económico», lo que incomprensiblemente no gusta a los africanos, pobrecitos ellos que no saben lo que quieren. O en Corsica, una isla que sus dineros le costó a la República cuando hace dos siglos la adquirió a los banqueros genoveses, y cuyos ingratos habitantes en lugar de estar agradecidos por disfrutar de la ciudadanía francesa claman no sé qué de independencias. *O en Polinesia donde* estos desagradecidos isleños amenazan con comportarse como corsos.

Que el folklórico *Pays Basque* es una mota de polvo en la ardiente agenda del Estado ha quedado patente tras la visita de Dominique De Villepin, un ministro del Interior enviado para solventar cuestiones tan peligrosas para la seguridad interior gala como la cooficialización del euskara, la creación de una cámara agraria vasca, el desarrollo de una universidad local o la puesta en marcha de una oficina contra la especulación inmobiliaria.

Como sucedió hace un año, temas sociales y culturales son todavía abordados por un emisario de Interior. Más que una declaración de intenciones, se trata de una asombrosa constatación: este territorio es para *París una posesión más*. De Villepin se fue como vino, como un virrey que graciosamente otorga favores a sus súbditos. Y en este caso ni eso. *Rien de rien* para estas colonias, salvo el *déjà vu* oliverstoniano. •

## gutunak

### EZEZKOA

Euskaltzaindiak Euskaltzain Urgazle izendatu ninduen 1957ko irailaren 26an.

Geroztikako 47 urte horretan, honegatik edo *hargatik, ez nau Euskal*tzain Oso izendatu. Eta horrela jokatzeko eskubidea ez diot inondik inora ukatuko.

Baina urte horietan hartutako erabakietan ez dut ezertan neure botoa emateko aukerarik izan; boto eskumena, betidaniko barne-araudiak finkatuta, 24 Euskaltzain Osoei dagokielako, eta ez beste inori.

Oraingoan, gaur prentsa bidez ikasi dudanez, *nire irizpideaz* kontsultatu gabe, Ohorezko Euskaltzain izendatzea erabaki du.

Askotan esan eta idatzia dut, ordea (Hemeroteka lekuko) ez nagoela prest orain neure euskaltzain mailan aldaketarik batere onartzeko. Areago Euskaltzaindiak alor *desberdin batzutan har*tua duen bidea gaitzesten dudalarik.

Ez dut ikamikarik nahi; eta gai honetaz ez dut besterik deus ere erantsiko.

Beude gauzak beren horretan.

Euskal Herriak eta euskarak berak badaukate ohorezko izendapen hauek baino kezka iturri larriagorik.

Anitz esker, beraz.

Baina ez daukat Euskaltzaindiaren izendapena onartzerik.

**Txillardegi** • Euskaltzain Urgazle iraunkorra

### ZENBAT INJUSTIZIA

Azkenaldian, zalantza bat dabilkit barnean biraka eta argitu ezinean nabil... ni naiz hankaz gora dabilena edota mundua bera dago buruz behera?

Iraken, AEBak egiten ari diren sarraskiak amaierarik gabea dirudien bitartean, hauteskundeak egin dira aipatutako mundu potentzian eta bi gertakarik bereziki harritu naute: batetik, jendearen partaidetza masiboa (bertako gizarte pasiboa ikusirik) eta bigarren, eta are harrigarriagoa (partaidetza *hori kontuan izanik), berriz ere Bushek «irabazi» duela eta oraingoan alde han*diz... hauteskundeak gauzak gaizkien egiten dituenak irabazten ote ditu? Beste zalantza bat gehiago... zeren eta AEBetako bipartidismoan bi aukera bakarrik egon arren, hautagai txarra (Kerry) eta are txarragoa (Bush), bien artean txarra aukeratzea izango litzateke zentzuzkoena... ez da justua. Hori bai, ezin ahaztu AEBak munduko beste hauteskundeak kontrolatu eta zilegi diren ala ez erabakitzen ibili arren, korrupzio eta tranpa gehien bere etxean dituztela (galdetu Al Goreri...) eta bitartean Iraken milioika zibil errugabe hilik, inperialismoaren milioika hilketa inpune... ez da justua.

Ekialde Hurbilean bestalde, Sharonek palestinarren aurkako holokaustoa egiten jarraitzen duen bitartean, Yaser Arafat zendu da (edo hil dute?), ustez gaixotasun baten ondorioz. Eta beste zalantza bat datorkit: erasoaren liderra hil den bitartean, erasotzaileena (hiltzaileena) sasoi betean dago, ezer pasako ez balitz bezala; zorteak ere bizkarra eman ote die zapalduei eta ahulei?... ez da justua.

Euskal Herrian zentratuz, berriz, betiko laino ilunek ez digute zeruko *izarrak ikusten uzten*. Nafarroako sozialistek Nafarroak EAEra lotzeko aukera kentzeko eskatu duten bitartean, egunkariko hainbat kide prozesatuak izango dira eta etorkizun beltza iragartzen zaie, eta bi astetan 28tik gora atxilotu dituzte indar okupatzaileek, bitartean EAJk Europako konstituzioari (estatuenari) baiezkoa emango diola esan du, eta lehendakariak hau nolabait justifikatzeko erabili duen argudioak «grazia» pixka bat egin dit: hobe dela itoginak dituen teilatupean lo egitea, kanpoan egitea baino... hitzak sobera, dena esanda dagoenean. Hori bai, nola lotu Ibarretxe plana eta Europako konstituzioa, bigarrenak lehenak bilatzen duena (edo bilatu beharko lukeena) ukatzen badu? Eta bitartean, hainbat belaunaldi bakea eta askatasuna ezagutu gabe doaz beste mundu batera (seguruenik mundu hobe batera). Ez al da garaia gure *arazo hau behingoz konpontzeko? Eta honela, ehunka presoren senideez oroi*tzen naiz, herritik kanpo klandestinitatean daudenez (ez seskula ahaztu argia bilatu nahi eta itzalean dauden horiek), gatazkaren ondorioz giza galeraren bat pairatu duten familiez, espainiar kartzeletan usteltzen ari diren herritarrez, inongo probarik gabe torturak jasan dituzten gazteez... ez da justua.

Eta mundura begiratuz, are eta okerragoa da panorama: janari faltaz hiltzen diren errukarriak, gaixotasunak sendatzeko baliabiderik ez dutenak, ezer gabe miserian bizi direnak, lurrikara, tifoien ondorioz zeukaten dena galdu dutenak (natura ere gutxien dutenen aurka al dago?)... ez da justua.

Duela 3 aste "Diarios de motocicleta" filma ikusi nuen, E. Guevara eta A. Granadok Hego Amerikan barrena egin zuten trabesiaren kontakizuna. Eta filmaren amaieran, Ernestok lagun Albertori bidaiako inpresioak laburtzeko honako hitzak erabiltzen ditu: «Zenbat injustizia», zein ondo deskribatu zigun egungo munduaren egoera Chek...

PD: Agur eta ohore Yaser Arafat... erresistentziak aurrera jarraitzen du...

**Aitor Irigoien Odriozola** • Getaria

**NOTA DE LA REDACCION:**

En las cartas que nos enviéis tiene que constar el nombre, dos apellidos, dirección, teléfono y documento acreditativo de la identidad; toda carta se publicará con el nombre y apellidos de su autor o autora; si exceden de 20 líneas a doble espacio este periódico se reserva el derecho de resumirlas. Las colaboraciones podrán tener entre 4.000 y 6.000 caracteres (espacios incluidos). Si rebasan esta extensión también serán resumidas.

dirección electrónica: **iritzia@gara.net**

### BOICOT A MCC

Parece ser que no bastaba con libros que denunciaran a estos falsos *«obreros», con su su*puesta labor social y ejemplo de unas relaciones laborales sin parangón. Por fin se les ve cada día más claro el plumero, invitan a quien mejor sirven, al Rey de los españoles. Su ideología el dinero, su fe el servilismo. No les importa lo que piense este pueblo, no les importa que están ubicados en un país en el que más de 200.000 ciudadanos somos ilegales por ese Rey y quienes le sirven, tienen que demostrar lo de siempre, que son los «vascos buenos y dóciles con el amo y orgullosos y desafiantes con quien se rebela».

Nuestra arma es darles en el bolsillo, castigar a su grupo, a su servilismo, boicotear Caja Laboral, Seguros Lagun Aro, no comprar en Eroski, no viajar con Eroski Bidaiak, nada de productos Fagor. Que le pidan cuentas al Rey para que les haga inversiones, ya que le rinden pleitesía. Si toman parte por el «bando real que nos regaló Franco», que paguen su tributo. Nosotros los clientes, aunque somos de muchos bandos, la mayoría tenemos claro que ese no es el nuestro y no tenemos porque plegarnos a su vasallaje. Si hay discrepancias fuertes y reales entre los socios cooperativistas, que pidan la dimisión de los responsables de este nuevo insulto a Euskal Herria y que la hagan efectiva.

**José María Arribas**

### ERABAKIA GUREA DA

Euskadiko eta Kataluniako selekzioen etorkizuna euskaldun eta katalanen eskutan dago. Hala ere, Kataluniako hockeyko selekzioarekin Fresnon gertatu denak erakusten digu bide legala eta politikoak ez direla nahiko. Estatuen tresnak eta posibilitateak boteretsuak dira eta estaturik gabeko nazioei oso urrun geratzen zaizkigu. Baina guk ere gure baliabideak dauzkagu eta hauek martxan jarri arte ez dugu gauza handirik lortuko. Garbi dago kirolariei buruz nabilela berba egiten. Segur aski oso erraza da guk eurei eskatzea Espainiako selekzioarekin ez jokatzeko, baina... zelan eskatuko dugu gure selekzioekin nazioartean ordezkatuta agertzea, ordezkatu beharko gaituztenek ez badute pauso bat ere ematen? Kirolari gehienek diote Euskadiko edo Kataluniako selekzioen alde daudela, baina lehenago gaia politikoki konpondu behar dela. Hori esatea ere oso erosoa da, arazoa eurena izango ez balitz bezala. Baina ekintza legalek eta politikoek kirolarien ekintzekin batera joan beharko lukete. Memento berdinean kirolari katalanek eta euskaldunek Espainiako selekzioari ezetz esanez gero, azken finean, ziur nago gure selekzioak izango genituzkeela; kirol batzuetan, behintzat. Hori gura duguna baldin bada. Agian gai honek ez du garrantzi handirik. Azken finean, agian berdin zaigu 11 tipo galtzontzilotan agertzea kamiseta batekin edo bestearekin, eta segur aski gutxiago irristari batzuk makila batekin pilotatxo baten atzetik. Baina hori larregi sinplifikatzea litzateke. Gaia garrantzitsua da eta ez dago hemen aipatzeko beharrik. Bestela, zergatik Estatu espainolaren mugimenduak Fresnon? Zergatik hainbeste esfortzu eta presio politiko Espainiako Gobernutik beste federakuntza batzuen ordezkarien botoak aldatzeko? Pentsa dezagun apur bat. Kirolariak: gu moduren baten ordezkatzen eta errespetatzen bagaituzue, Espainiako selekzioarekin gehiago ez jokatzea eskatzen dizuet. Ni katalana naiz eta hori kirolari katalanei eskatuko nieke. Fresnoko umiltzeren ondoren ez dut ulertuko katalan batek Espainiako selekzioarekin jokatzea.

**Josu Tornay**

### MUCHAS GRACIAS

*El 11-11-2004 Ana Isabel* López Zurdo, mi esposa, falleció mientras paseaba junto a su madre por la calle Portu de Portugalete. Quisiera dar las gracias a todos y cada uno de los que lucharon por salvar su vida. Especialmente a Concha, del ambulatorio de la calle General Castaños, que avisó al 112 y a mí, además de hacerle los primeros ejercicios de reanimación. De hecho; cuando los sanitarios del 112 le tomaron el relevo Ana aún tenía pulso y respiración. También al personal de Calzados Loizaga, que nos facilitaron acomodo en el interior del local. No olvidaré tampoco a un joven, cuyo nombre desconozco, que se bajó de un autobús para darnos *apoyo moral y consuelo*, e incluso cuando fui al Instituto Zunzunegi a comunicarle a mi hija la fatal noticia, me acompañó.

Quisiera agradecer a los efectivos del 112, por hacer todo lo que estuvo en sus manos para salvar la vida de Ana. Gracias a todos y cada uno de los familiares y amigos que nos han mostrado su solidaridad, cariño y apoyo. Muchas gracias.

**Luis Blanco** • Portugalete

### VISTO NO VISTO,

Tenemos la casa desordenada, los enseres fuera de su sitio. Las cosas tienen que estar con las cosas y las personas con las personas. Las cosas bonitas son para admirarlas y *su visión diaria desde la* lejanía nos refuerza esa admiración, como los montes de nuestro *botxo*.

Las personas son para quererlas por lo que han sido y son, por sus obras. ¡La cultura, con la cultura! Que el nombre de la escuela Bide Pagasarri Matilde Orbegozo me recuerde a mi gente, a mis poetas. Que sus versos esculpidos en piedra me den un soplo de aire fresco cuando pase y los lea. Por esto os pido que la escuela recupere su nombre originario dando todo el protagonismo que se merece a nuestra Matilde, poetisa bilbaína de marcado contenido religioso. Reponga- mos sus quintillas con cincel y martillo en la inmortal piedra de la iglesia de *San Nicolás, para recor*darnos el valor católico de la confesión y el arrepentimiento de los pecados, aquellos versos que arrebató la riada del 83.

**Itxaso Larrañaga** • Bilbo